



GOBERNU BATZARRA

2021.06.15

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia

Nerea Letamendia Belloso

Patxi Amantegi Zubiria

Jose M^a Villanueva Telleria

Ez da bertaratu:

Xabier Balerdi Tolosa

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko ekainaren hamabostean, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda:

1. Akta hau onartzea: 2021eko ekainaren 8ko ohiko bilkurakoa.
2. Trafikoko Buruzagitza Nagusia erakunde autonomoaren eta Estatuko udalerrri eta probintzien Federazioaren arteko hitzarmenari atxikitzea, informazioa trukatzeko eta elkarren arteko administrazio-lankidetzarako.
3. Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko zerbitzu-kontratuan, Autobuses Cuadra SA enpresak egin duen eskaera kontratuaren baldintza ekonomikoak berrorekatzeko.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2021EKO EKAINAREN 8KO OHIKO BILKURAKOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2021eko ekainaren 8an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. TRAFIKOKO BURUZAGITZA NAGUSIA ERAKUNDE AUTONOMOAREN ETA ESTATUKO UDALERRI ETA PROBINTZIEN FEDERAZIOAREN ARTEKO HITZARMENARI ATXIKITZEA, INFORMAZIOA TRUKATZEKO ETA ELKARREN ARTEKO ADMINISTRAZIO-LANKIDETZARAKO.

AURREKARIAK

Trafikoko Buruzagitza Nagusia erakunde autonomoaren eta Espainiako udalerrri eta probintzien Federazioaren artean lankidetzeta hitzarmena sinatu zuten 2006ko martxoaren 15ean.



Hitzarmenaren xedea: informazioa trukatzeko eta elkarren arteko administrazio-lankidetzarako.

Zerbitzu berriak egongo dira Udaletxean: Zirkulazio- eta gida-baimenen helbide-aldaketa. Interesdunen helbideari dagozkion Ibilgailuen eta Gidarien eta Arau-hausleen Erregistroetako datuak eguneratzen laguntzea. Nolabaiteko antzintasuna duten zenbait ibilgailuri, dokumentaziorik gabe, behin betiko baja ematea, baita abandonatutako ibilgailuei edo bere garaian desegiteko entregatu zirenei ere, Ibilgailuen Erregistro Orokorrean baja idatziz jasotzea eskatu gabe.

Helburua: alferrikako joan-etorriak saihestea da.

Publizitatea: Lankidetzaren hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gardentasun atarian (abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 b) artikulua arabera) argitaratu beharko da.

TXOSTEN JURIDIKOA

HITZARMENAREN FIGURARI BURUZ: Administrazio Publikoen arteko harremanak gidatzen dituzten printzipio orokorretan dago kokatuta Administrazio Publikoen arteko lankidetzaren, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1.k) artikuluan xedatzen denarekin bat eginez. 47-53. artikuluetan dago xedatuta.

Xede horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 100.1. artikuluan ezartzen du beren artean edo gainerako administrazioekin lankidetzaren hitzarmenak egin ditzaketela, kudeaketa publikoa efizientea izan dadin eta bikoiztasun administratiboak saihesten edo deusezta daitezkeen. (1. eta 4. artikulua). Era berean, 9. eta 10. artikulua.

40/2015 Legearen 47-49 artikuluek, honela diote:

“47. artikulua. Definizioa eta hitzarmen motak.

1. Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera. Ez dira hitzarmenak hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen. Hitzarmenek ezingo dute xedatzen hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio.

2. Administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek sinatzen dituzten hitzarmenak honako mota hauetariko batekoak izango dira:

a) Administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutako administrazio arteko hitzarmenak, edo administrazio publiko diferenteei lotutako edo haien mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate biren edo gehiagoren artean sinatutakoak. Hitzarmen horien barnean bildu ahalko da beste administrazio publiko baten edo lotutako



edo mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate baten bitarteko, zerbitzu eta baliabideak erabiltzea, eskumen propioak edo delegatuak baliatzeko. Salbuetsita geratzen dira autonomia-erkidego bik edo gehiagok zerbitzu propioak kudeatu eta emateko euren artean sinatzen dituzten administrazio arteko hitzarmenak, autonomia bakoitzaren estatutuak xedatzen duena izango baitute arau hipotesi, betekizun eta baldintzei dagokienez.

b) Administrazio publiko berari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen artean sinatutako administrazio barneko hitzarmenak.

c) Administrazio publiko edo zuzenbide publikoko organismo edo entitate baten eta zuzenbide pribatuko subjektu baten artean sinatutako hitzarmenak.

d) Nazioarteko tratatu, nazioarteko administrazio-akordio edo nazioarteko akordio araugintzaz bestelako ez diren hitzarmenak, administrazio publikoen eta nazioarteko zuzenbideko subjektu bateko organo, organismo publiko edo enteen artean sinatuak, alderdiek zehaztutako barne-ordenamendu juridikoaren mende egongo baitira.

48. artikulua. Hitzarmenen baliozkotasun- eta efikazia-baldintzak.

1. Administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek eta unibertitate publikoek, zeinek bere eskumenen barruan, hitzarmenak sinatu ahalko dituzte zuzenbide publikoko eta pribatuko subjektuekin, baina horrek ezin du ekarri eskumenaren titulartasuna lagatzea.

2. Estatuaren Administrazio Orokorraren eta hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen esparruan, hitzarmenak egin ahalko dituzte ministerio-departamentuetako titularrek eta entitate eta organismo publiko horietako buru edo zuzendariek.

3. Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezten lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza jasangarritasunerako legeria bete.

4. Hitzarmen batek barnean hartzen dituen finantza-konpromisoak hura sinatu duen administrazio publikoarentzat edo hari lotutako edo haren mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitateetako edozeinentzat, aurrekontu-legerian xedatuta dagoena bete beharko da hitzarmen horren ondoriozko gastuekin eta hitzarmen horren arabera konprometitutako funtsekin zerikusia duten kudeaketan, justifikazioan eta gainerako jarduketetan.

5. Finantza-konpromisoak barnean hartzen dituzten hitzarmenek jasangarri behar dute finantzen aldetik, eta sinatzaileek gaitasuna izan beharko dute beren gain hartutakoak finantzatzeko hitzarmenak dirauen bitartean.

6. Sinatzaileek finantza-ekarpenak egiteko konpromisoa hartu badute, ekarpen horiek ezingo dira handiagoak izan hitzarmena betearaztearen ondoriozko gastuak baino.

7. Hitzarmenak diru-laguntza bat bideratzen badu, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta, hala badagokio, aplikatu beharreko autonomia-erkidegoko garapen-araudian aurreikusita dagoena bete beharko du. Halaber, hitzarmenaren xedea toki-erakunde bati eskumenak delegatzea bada, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatuta dagoena bete beharko du.



8. Alderdiek adostasuna emanaz burutzen dira hitzarmenak. Estatuaren Administrazio Orokorrak edo hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoetako batek edo zuzenbide publikoko entitateetako batek sinatutako hitzarmenak efikazak izango dira hitzarmen horiek Estatuko sektore publikoko Lankidetzako Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoa –zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen baita– inskribatu eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren. Aldez aurretik, eta aukeran, beste administrazio sinatzaileari dagokion autonomia-erkidegoko edo probintziako aldizkari ofizialean argitaratu ahalko dira.

9. Kapitulu honetako arauak ez zaizkie aplikatuko kudeaketa-gomendioei eta administrazio-prozedurak hitzarmen bidez amaitzeko akordioei.

49. artikulua. Hitzarmenen edukia.

Aurreko artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren hitzarmenek barnean hartu beharko dituzte gai hauek, gutxienez:

a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzak zer gaitasun juridikorekin jarduten duen.

b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren, hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen edo unibertsitate publikoen jarduketak.

c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduketak, lortutako emaitzen titulartasuna azalduta, hala badagokio.

d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago; haien urtekako denbora-banaketa adierazi beharko da, bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera.

e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak, eta, hala badagokio, ez betetzeak ondoriozta daitezkeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.

f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoei aplikatzekoak. Mekanismo horrek ebatziko ditu hitzarmenak direla eta planteatu daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak.

g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. Arau espresurik ez badago, sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmenaren edukia aldatzeko.

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:

1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.

Estatuaren Administrazio Orokorrak edo haren mendeko edo hari lotutako erakunde publikoetako batek eta zuzenbide publikoko entitateetako batek sinatutako hitzarmenen kasuan, luzapen horren berri eman beharko zaio Lankidetzako Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoa, zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen baita.”

-Toki Araubideko oinarriak arautzen dituen Legeak honela dio, bere 16.3. artikuluan:”*Los datos del padrón municipal se cederán a otras administraciones públicas que lo soliciten*



sin consentimiento previo del afectado solamente cuando les sean necesarios para el ejercicio de sus respectivas competencias, y exclusivamente para asuntos en los que la residencia o el domicilio sean datos relevantes. También pueden servir para elaborar estadísticas oficiales sometidas al secreto estadístico, en los términos previstos en la Ley 12/1989, de 9 de mayo, de la función estadística”.

Organo eskuduna-Gobernu Batzarra.

Horrela dio 1228 Dekretuak, uztailaren 16koak: “Alkatetzak eskuordetzea legeriak ematen dizkion ondorengo eskumenak Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari: 5.- Lankidetzak Hitzarmenak: Beste Administrazioekin edo pertsona fisiko eta juridikoekin lankidetzak hitzarmenak onartzea, ondoko legeen aplikazio-eremutik kanpo geratzen direnak: 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen eta 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa, eta horiek garatzeko arauak.

Oharra: Hitzarmenaren ondorengo artikulua aldatu egin behar dira, ez daudelako indarrean:

-VI apartatuan: 4.1.c de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común jartzen duen lekuan, ondorengoa jarri behar du: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1.k).

-Bosgarren artikuluan: “Real Decreto Legislativo 2/2000, de 16 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido 2/2000, de 16 de junio, según se determina en su artículo 3.1.c “jartzen duen lekuan, ondorengoa jarri behar du.”” Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, según se determina en su artículo 6.1”. -Zortzigarren Klausulan, hirugarren paragrafoa kendu egin beharko litzateke ez delako aplikagarria.

-Anexo I. Plenoaren erreferentzia kendu eta horren ordez Gobernu Batzarra jarri beharko litzateke, hau baita organo eskuduna.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Atxikitzea Trafiko Buruzagitza Nagusiaren eta Espainiako udalari eta probintzien Federazioaren artean 2006ko martxoaren 15ean sinaturiko lankidetzak hitzarmenari, honako klausula hauen arabera:

“Primera: Objeto del contrato

El presente Convenio tiene por objeto la creación de un marco suficiente para la colaboración y el intercambio de información entre las Entidades Locales y la organización periférica del Organismo Autónomo JCT, en las materias que comprendan la gestión censal en lo que se refiere a los Registros de Vehículos y de Conductores e Infractores,



así como en lo que afecte a la gestión tributaria del IVTM, conforme a lo previsto en el exposito IV de este Convenio y la colaboración para la baja definitiva de determinados vehículos.

Este Convenio de Colaboración no supone renuncia a las competencias de cada Administración interviniente, ni afecta a otros acuerdos o colaboraciones que puedan existir actualmente entre ambas Administraciones.

Segunda.- Sistema de adhesión al Convenio

Cada Entidad Local, a través de su órgano de gobierno, enviará a la Jefatura Provincial o Local de Tráfico correspondiente a su ámbito territorial su solicitud de adhesión plena y sin condiciones al presente Convenio, en el modelo que se incluye como Anexo I (Solicitud de Adhesión).

La aceptación de tal adhesión, previos los trámites internos oportunos, será realizada por el Jefe Provincial o Local de Tráfico y, posteriormente, comunicada a la Entidad Local por conducto de la FEMP y a la Dirección General de Tráfico.

Realizados los trámites descritos se procederá a la suscripción del Protocolo de Adhesión en el modelo que se incluye como anexo II al presente Convenio entre la Entidad Local y el Jefe Provincial o Local de Tráfico.

Tercera.- Obligaciones de las Jefaturas Provinciales y Locales de Tráfico

1. Mantener actualizados los datos de los domicilios correspondientes al censo de vehículos y de conductores en los Registros de Vehículos y de Conductores e Infractores.

2. Convenir con la Entidad Local correspondiente (Ayuntamiento/Diputación, Cabildo, Consejo Insular, según los casos) el sistema en el que deban efectuarse las comunicaciones de los nuevos domicilios, promoviendo en la medida en que sea posible el empleo de medios telemáticos (archivo informático, correo electrónico, etc.). De no ser posible, podrán utilizarse otros medios como el correo, fax, etc.

3. Anotar en el Registro de Vehículos y en el de Conductores e Infractores los cambios de domicilio en el plazo de diez días hábiles desde la recepción de la comunicación, y expedir un nuevo permiso de circulación.

4. Convenir con la Entidad Local el sistema de acceso a los datos que sobre los vehículos matriculados constan en el Registro de Vehículos, fomentando el empleo de sistemas telemáticos o el envío, en su caso, de los datos en formato electrónico.

5. Fomentar la institucionalización de la presencia de puestos de trabajo y de atención al público de las Entidades Locales en las dependencias de las Jefaturas Provinciales y Locales de Tráfico.

6. Poner a disposición de la Entidad Local, durante la primera quincena de cada mes, las variaciones producidas en el mes anterior correspondientes a los vehículos siempre que tengan trascendencia tributaria para la gestión del IVTM, fomentando en la medida en que sea posible que la comunicación se realice mediante la utilización de sistemas telemáticos.

7. Convenir con la Entidad Local correspondiente el sistema en el que deba efectuarse la comunicación de las bajas por depuración, promoviendo el empleo de medios telemáticos.

8. Remitir a la FEMP las Instrucciones dictadas por la Dirección General de



Tráfico que afecten a la gestión tributaria en materia del IVTM.

Cuarta.- Obligaciones de la Entidad Local

1. Interesar de los ciudadanos que acudan a empadronarse la cumplimentación del modelo de solicitud de duplicado por cambio de domicilio del permiso de circulación o del permiso de conducción que se incluye como anexo III al presente Convenio o, en su caso, incluir en el modelo oficial establecido al efecto de solicitud de certificado de empadronamiento una casilla que el ciudadano pueda tachar con la leyenda siguiente: “con la presente solicitud autorizo al Ayuntamiento de a que comunique a la Jefatura Provincial o Local de Tráfico el cambio de domicilio de mi permiso de circulación o de conducción”.

2. Comunicar a la Jefatura Provincial o Local de Tráfico correspondiente a su ámbito territorial los cambios de domicilio en un plazo máximo de diez días hábiles desde que tenga entrada la solicitud.

3. Convenir con la Jefatura Provincial o Local de Tráfico correspondiente el sistema en el que deban efectuarse las comunicaciones de los nuevos domicilios, promoviendo en la medida en que sea posible el empleo de medios telemáticos (archivo informático, correo electrónico, etc.). De no ser posible, podrán utilizarse otros medios como el correo, fax, etc.

4. Convenir con la Jefatura Provincial o Local de Tráfico el sistema de acceso a los datos que sobre los vehículos matriculados constan en el Registro de Vehículos, fomentando el empleo de sistemas telemáticos o el envío, en su caso, de los datos en formato electrónico.

5. Convenir con la Jefatura Provincial o Local de Tráfico los medios para la remisión de las variaciones relativas a los vehículos siempre que tengan trascendencia tributaria para la gestión del IVTM, fomentando en la medida que se posible la realización de las comunicaciones a través de medios telemáticos.

6. Convenir con la Jefatura Provincial o Local de Tráfico correspondiente el sistema en el que deba efectuarse la comunicación de las bajas por depuración, promoviendo el empleo de medios telemáticos.

7. Comprobar el cumplimiento de los requisitos legalmente previstos para solicitar el cambio de domicilio del permiso de circulación o de conducción por parte del interesado.

8. Recoger el permiso de circulación del vehículo, que será remitido a la Jefatura Provincial o Local de Tráfico correspondiente y entregar al solicitante del cambio de domicilio una fotocopia de aquél debidamente cotejada en la que se estampará una diligencia de acuerdo con el formato y contenido previstos en el anexo IV.

Quinta.- Naturaleza

El presente Convenio tiene naturaleza administrativa y se encuentra entre los supuestos expresamente excluidos del ámbito de aplicación del Real Decreto legislativo 2/2000, de 16 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, según se determina en su artículo 3.1.c).

Sexta.- Plazo de vigencia y causa de resolución

El presente Convenio entrará en vigor al día siguiente de su firma y tendrá



vigencia por un año, que se prorrogará de manera automática por idéntico plazo, salvo que se resuelva por alguna de las causas siguientes:

- Mutuo acuerdo de las partes manifestado por escrito.
- Denuncia hecha por cualquiera de las partes, con tres meses de antelación.
- Incumplimiento grave de cualquiera de las partes de los Acuerdos del Convenio.

Séptima.- Financiación

El presente Convenio no genera obligaciones económicas para ninguna de las partes firmantes del mismo.

Octava.- Comisión de seguimiento

Con el fin de coordinar las actividades necesarias para la ejecución del presente Convenio, así como para llevar a cabo su supervisión, seguimiento y control, se creará una Comisión Mixta de Coordinación y Seguimiento compuesta por tres representantes de la JCT, nombrados por el Director General de Tráfico, y otros tres de la FEMP, nombrados por su Presidente.

En calidad de asesores, con derecho a voz, podrán incorporarse cualesquiera otros funcionarios que se considere necesario.

Tendrá, entre otras, la facultad de resolver los problemas de interpretación y cumplimiento del presente Convenio. A tal efecto, se aplicarán los principios de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, para resolver las dudas y lagunas que pudieran plantearse, de acuerdo con lo previsto en su artículo 3, apartado 2.

La Comisión se reunirá a instancia de cualquiera de las partes y, al menos, una vez cada seis meses, para examinar los resultados e incidencias de la colaboración realizada.

Novena.- Cuestiones litigiosas

Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en la interpretación y cumplimiento del presente Convenio y que no sean resueltas por la Comisión de Coordinación y Seguimiento, se someterán al conocimiento y competencia del Orden Jurisdiccional de lo Contencioso-Administrativo. “

BIGARRENA.- Hitzarmena izenpetzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari ofizialean, Tolosako Udaleko iragarki taulan eta Web orrian.

3. TOLOSAKO HIRI-GARRAIO KOLEKTIBOAREN ZERBITZU PUBLIKOA KUDEATZEKO ZERBITZU-KONTRATUAN, AUTOBUSES CUADRA SA ENPRESAK EGIN DUEN ESKAERA KONTRATUAREN BALDINTZA EKONOMIKOAK BERREREKATZEKO.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea:	Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko zerbitzu-kontratua
---------------------	---



Unitate sustatzailea:	Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetiko Azpisaila
Espedientea:	2020SABI0001

II.- AURREKARIAK

Lehen.- Tolosako Udaleko Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetiko Azpisaileko teknikariak 2019ko abenduaren 4an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, Administrazio Baldintza Partikularren Plegua, Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria, eta idazkaritza eta kontu-hartzailetzaren txostenak eskatzen zituen jardunbidea burutu ahal izateko. 2020ko uztailaren 16an, behin betiko txostena igorri zen.

Bigarrena.- Behin jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, zegokion iragarkia argitaratu zen Euskadiko Kontratzailearen Profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean. Proposamenak aurkezteko epean RJ AUTOCARES, S.L. (B-80615495), TOLOSALDEA BUS, S.L. (B-20477071), AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A-01018258) eta TRANSITIA, S.L. eta AUTOCARES URPA, S.L. eratu beharreko ABEEa (UTE TOLOSAKO AUTOBUSA) aurkeztu ziren.

Hirugarrena.- Jardunbide osoa legearen arabera egin ondoren AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A-01018258) enpresa izan zen puntuazio altuena lortu zuena eta 2021eko otsailaren 9an kontratazio organoak kontratua esleitu zion. TOLOSALDEA BUS, S.L. (B-20477071) enpresak ebazpen hori errekurritu zuen Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoan (OARC/KEAO) eta EB 2021/034 ebazpenaren bitartez OARCEk ezeztatu zuen errekurtsua. Horren ondorioz 2021eko ekainaren 1ean zegokion kontratua formalizatu zen Udalaren eta AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A-01018258) enpresaren artean.

Laugarrena.- 2021eko maiatzaren 21ean sarrera izan zuen udal erregistroan 5231 zenbakiarekin AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A-01018258) enpresak aurkeztutako idatzia; bertan hau eskatzen du:

Necesidad surgida de sustituir el espacio dispuesto por el Ayuntamiento para establecer las cocheras del servicio.

(...)

III. Al realizar esos preparativos esta parte ha advertido que no es posible emplear el espacio que el Ayuntamiento se obligó en la licitación 2020SABI0001 a proporcionar para guardar los dos autobuses adscritos (apartado 6.4 del PPTP), tal y como ofertó de conformidad con los pliegos. AUTOBUSES CUADRA ha habilitado unas cocheras en: Polígono Industrial Usabal 23 Bajo, 20400 Tolosa.

IV. Las cocheras habilitadas por AUTOBUSES CUADRA cumplen todos los requisitos necesarios para prestar al Ilmo. Ayuntamiento de Tolosa el servicio público de transporte colectivo urbano.



V. Dado que la disponibilidad del espacio proporcionado por el Ayuntamiento debía ser gratuita para el contratista, la circunstancia indicada en el expositivo III supone para AUTOBUSES CUADRA unos sobrecostes para el servicio que no pudieron ser presupuestados a la hora de concurrir en la licitación 2020SABI0001.

VI. La circunstancias indicadas en los expositivos III y VI es sobrevenida y habría afectado a cualquier adjudicatario.

En la confianza de que el Ilmo. Ayuntamiento de Tolosa proceda a reequilibrar las condiciones económicas del contrato teniendo en cuenta las referidas circunstancias sobrevenidas, esta parte se dispone a formalizar el contrato y a completar los preparativos para comenzar a prestar el servicio ofertado.

En este sentido AUTOBUSES CUADRA se ofrece a presentar en el Ayuntamiento la justificación de cuáles son los sobrecostes que es necesario reequilibrar una vez se haya formalizado el contrato.

Enpresak aipatzen du "...esta parte ha advertido que no es posible emplear el espacio que el Ayuntamiento se obligó en la licitación ...". Ondoren esango den bezala, Udalak toki itxi bat jarri du enpresa adjudikaziodunaren eskura zerbitzuko autobus nagusia gordetzeko, baina horrek ez du baldintzatu, eta horregatik enpresaren eskaera, beste leku bat erabiltzeko aukera.

III.- PLEGUAK ETA AZTERKETA EKONOMIKOA

Administrazio baldintza Partikularren Pleguko I. Eranskinetako 1. puntuan hau esaten da:

Udalak toki itxi bat jarriko du enpresa adjudikaziodunaren eskura, zerbitzuko autobus nagusia gordetzeko.

Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguko (PTPP) 6.4 artikuluan Udalak eskainitako kotxerari buruz hau aipatzen zen:

«6.4 Kotxerak

Udalak 200 eta 300 m²-ko espazio estali bat eskainiko du 2 autobusak gordetzeko.

Leku horretan 100 kw emateko akometida egotea bermatuko da.

Lokalak zerbitzu desberdinetara konektatzeko oinarrizko azpiegitura izango du. Hala ere enpresa esleipendunak jarri beharko ditu jarduerarentzat beharrezkoak diren osagaiak. Zerbitzuen fakturak, argindarra, ura, interneta eta abar enpresa esleipendunaren kontura izango dira».

Horretaz gain, 2020ko irailaren 3an, aipatutako instalazioetara bisita egin zuten Udalaren zerbitzu teknikoek enpresa lizitazzaileen ordezkariekin. Bilera horretan, AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A-01018258) enpresaren ordezkari batek hartu zuen parte eta ez zuen arazorik edota kezkarik aurkeztu instalazioei buruz.



Halaber, lizitazioa arautzen zuen dokumentazioaren artean ISVIAL enpresak egindako azterketa ekonomikoa dago eta horretan, “cocheras y lavadero” kontzeptuagatik diru kopuru bat aurreikusten zen.

IV.- ONDORIOAK

1.- Lokala erabiltzeko ezintasuna

Enpresak honako hau dio “... *Al realizar esos preparativos esta parte ha advertido que no es posible emplear el espacio...*” eta “...*supone para AUTOBUSES CUADRA unos sobrecostes para el servicio que no pudieron ser presupuestados a la hora de concurrir en la licitación 2020SABI0001. VI. La circunstancias indicadas en los expositivos III y VI es **sobrevenida** y habría afectado a cualquier adjudicatario...*”.

Enpresak argi utzi du kontratua egikaritzeko prestaketak egiten hasi denean ikusi duela Udalak adjudikaziodunaren eskura utzitako lokalak ez dituela baldintzak betetzen, hau da, behin esleipena gertatu ondoren, nahiz eta hilabeteak izan hori ikusi ahal izateko. Halaber, arestian esan bezala, instalazioen bisitan parte hartu zuen eta ez zuen kezkarik aurkeztu. Are gehiago, lehiaketan parte hartzeak, doktrinak behin baino gehiagotan aipatu bezala, pleguetan jasotakoa erreserbarik gabe onartzea dakar.

Horretaz gain, enpresaburu arretatsu baten betebeharra da, edozein lehiaketa publikora bere proposamena aurkeztu aurretik, kontratuaren egikaritzean sortu daitezkeen arazoak aurreikustea. Hori lotu behar dugu enpresak “*la circunstancia es sobrevenida*” esaten duenarekin. Gerora sortutako inguruabar aurreikustezinak dira; hasiera batean espero ezin zirenak, hasieran aurreikusi gabeko arrazoiengatik gertatu direlako. Hori ez da gertatu, ordea, Tolosako udal ferialekuan, eraikin horrek ez baitu aldaketarik izan azken urteetan. Beraz, ez da onargarria gerora sortutako inguruabarrak tartean egon direla esatea.

2.- Baldintza ekonomikoak berrorekatzea

Enpresak bere idatzian esan du “...*proceda a reequilibrar las condiciones económicas del contrato teniendo en cuenta las referidas circunstancias sobrevenidas.*”. Arestian esan bezala, hemen ez dago gerora sortutako inguruabarrak, eta kontratuaren berrorekatze ekonomikoa, SPKLn xedatutakoa kontuan hartuz, emakida-kontratuetan bakarrik gertatu daiteke, eta hau ez da emakida-kontratu bat, zerbitzu-kontratu bat baizik.

Hala ere, nahiz eta zerbitzu-kontratu bat izan, modu orokorrean hartuko da enpresak egindako eskaera eta aipatu behar den lehenengo gauza da hemen ez dela gertatu “*factum principis*” izeneko egoera (administrazio publiko emakida-emailearen jarduketak, kontratuaren ekonomiaren funtsezko haustura zuzenean eragiten dutenak emakidadunarentzat nahitaezkoak izateagatik), Udalak ez baitu kontratuaren ekonomian funtsezko haustura zuzenean eragiten duen irizpide edo betebeharririk egin. Halaber, aipatu behar da hemen “*ius variandi*” (Administrazioaren pribilegioa, aukera ematen diona kontratista exekutatzan ari den bitartean kontratu batean funtsezkoak ez diren baldintzak



aldatzeko, interes publikoko arrazoiak argudiatuz, nahiz eta aldaketa pleguan aurreikusita ez egon) izeneko printzipioak aurreikusitakoa ez dela aplikagarria Udalak ez baitu kontratuaren baldintzarik aldatu.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuz **ikus daiteke Udalak ez duela kontratuaren baldintzarik aldatu, ezta kontratuaren ekonomiaren funtsezko haustura zuzenean eragiten duten irizpide edo betebeharririk egin.** Arestian aipatu bezala, "Udalak toki itxi bat jarriko du enpresa adjudikaziodunaren eskura, zerbitzuko autobus nagusia gordetzeko" eta enpresak leku hori egokia ez dela iritziz gero, eskubidea dauka aproposa den beste leku bat proposatzeko. Kasu honetan, Tolosako Usabal industrialdeko 23. zenbakian dagoen pabiloia.

VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontuan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak, hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eskumena alkate-lehendakariarena izango litzateke, baina Tolosako Udalaren kasuan, 2019/1228 Alkatezaren Dekretuaren bidez, alkate-lehendakariak hainbat eskumen eskuordetu zituen Tokiko Gobernu Batzarrean, horien artean 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuen lizitazioak onartzea. Beraz, **Tokiko Gobernu Batzarra da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ez onartzea, Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko zerbitzu-kontratuan, AUTOBUSES CUADRA SA (A-01018258) enpresak egindako eskaera kontratuaren baldintza ekonomikoak berrorekatzeko, arestian azaldutako arrazoiengatik.



TOLOSAKO
UDALA

2021IGBA00012

BIGARRENA.- Onartzea AUTOBUSES CUADRA SA (A-01018258) enpresak egindako eskaera, kontratuari atxiki beharreko autobusak Udalak utzitako lekuan gorde orde, Tolosako Usabal industrialdeko 23. zenbakian dagoen pabiloian gordetzeko.

HIRUGARRENA.- Erabaki horiek jakinaraztea interesdunari, Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetikoaren Azpisailari, Ogasun eta Finantza Administrazio Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 11:55ean.
ALKATEA **IDAZKARIA**



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IGBA0012-2021-06-15 Gobernu batzarreko akta/2021-06-15 Gobernu